

2016ko LEP

Lanpostua: UDALTZAINGOKO AGENTEA

2017/03/25

1. ariketa (1. eta 2. probak)

1. **Bi proba** ditu ariketak, **bereiz. 100 galdera** ditu. **60 galdera lehenengo probari** dagozkio, eta **40 bigarenari**. **Launa erantzun** dute **aukeran**.
2. Ariketa egiteko **gehienez 100 minutu** izango dira.
3. Proba bakoitzeko zuzeneko puntuazioa emateko formula hau baliatuko da: zuzeneko puntuazioa = asmatutakoen kopurua – (erroreen kopurua x 0,33)
4. **Lehenengo probako puntuak ematea**. Lortzen den zuzeneko puntuaziorik altuena 20,00 punturekin parekatuko da, eta puntuazio horren % 60 izango da gutxieneko gaitasunaren puntuazioa (0,00). Hortik beherako zuzeneko puntuazioa ateratzeak hautatze-prozesutik kanpo geratzea ekarriko du.
5. **Bigarren probako puntuak ematea**. Lortzen den zuzeneko puntuaziorik altuena 15,00 punturekin parekatuko da, eta puntuazio horren % 50 izango da gutxieneko gaitasunaren puntuazioa (0,00). Hortik beherako zuzeneko puntuazioa ateratzeak hautatze-prozesutik kanpo geratzea ekarriko du.

Eredua: **D**

Ez ireki esan arte.

LEHEN ARIKETA. LEHEN PROBA. (60 galdera)

- 1.- Konstituzioaren 13. artikulua ildotik, atzeritarrek, Espainian,...
- a) titulu honek (I) bermatzen dituen askatasun publikoak izango dituzte, itunek eta legeek ezartzen dutenaren arabera.
 - b) Espainian sortuak diren pertsonen onartzen zaizkien askatasun publikoak izango dituzte.
 - c) asilo-eskubidea izango dute.
 - d) Horietako bat ere ez.
- 2.- Estatuak nazionalitate bikoitzeko itunak egin ahal izango ditu...
- a) Europar Batasuneko herrialdeekin bakarrik.
 - b) Iberoamerikako herrialdeekin nahiz Espainiarekin lotura berezia duten edo izan dutenekin.
 - c) Hego Amerikako herrialde guztiekin.
 - d) Aurreko horietako batekin ere ez.
- 3.- Adieraz ezazu Konstituzioaren 14. artikulua enuntziatu zuzena:
- a) Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin jaiotza, arraza, sexua edo beste edozein zirkunstantzia pertsonal dela eta.
 - b) Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin jaiotza, arraza, erlijioa, iritzia edo beste edozein kondizio edo zirkunstantzia sozial dela eta.
 - c) Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein kondizio edo zirkunstantzia pertsonal edo sozial dela eta.
 - d) Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin arraza, sexua, iritzia edo beste edozein kondizio edo zirkunstantzia pertsonal edo sozial dela eta.
- 4.- Konstituzioaren 147. artikulua lehen atalean honela dago ezarria: “Konstituzio honen arabera, estatuak autonomia-erkidegoen oinarriko erakunde-arauak izango dira, eta Estatuak hala aitortu eta babestuko ditu, bere antolamendu juridikoaren osagai dira eta”. Bigarren atalean, berriz, honela dio: “Autonomia-estatuetek ondokoak jaso behar dituzte:” Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**.
- a) Erkidegoaren izena, haren nortasun historikoaren arabera egokiena dena.
 - b) Erkidegoaren lurralde-mugak.
 - c) Erkidegoaren hizkuntza ofiziala.
 - d) Konstituzioak ezarri eremuaren barruan bereganaturiko eskumenak, eta eskumenok zein zerbitzu ekarri eta zerbitzu horiek eskualdatzeko oinarriak.
- 5.- Euskadiko Autonomia Estatuaren 24. artikulua honela dago ezarria:
- a) Euskal Herriaren aginteak Legebiltzarraren, Jaurlaritzaren eta Lehendakariaren bidez gauzatuko dira.
 - b) Euskal Herriaren aginteak Legebiltzarraren, Jaurlaritzaren eta senatarien bidez gauzatuko dira.
 - c) Euskal Herriaren aginteak Legebiltzarraren, Jaurlaritzaren, Lehendakariaren eta erkidegoan hautatutako diputatu eta senatarien bidez gauzatuko dira.
 - d) Euskal Herriaren aginteak Legebiltzarraren, Jaurlaritzaren, Lehendakariaren eta Batzar Nagusien ordezkarien bidez gauzatuko dira.

6.- Espainian bizi den pertsona orok ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan inskribatu behar du, eta...

- a) hainbat udalerritan bizi denak urtean denbora gehien bizi den hartan inskribatu behar du.
- b) hainbat udalerritan bizi denak guztietan inskribatu behar du.
- c) hainbat udalerritan bizi denak aukeratzen duen hartan inskribatu behar du.
- d) Ez du batean ere inskribatu beharrik.

7.- Atzerritarrek izanik, udal erroldan inskribatzean nahitaezkoak izango dira datu hauetako batzuk: Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**.

- a) Nazionalitatea.
- b) Bizileku-txartelaren zenbakia —indarrean dagoena eta Espainiako agintariak emandakoa—, edo, haren ezean, nortasun-egiaztagiriaren edo pasaportearen zenbakia —indarrean dagoena eta jatorriko agintariak emandakoa— Europar Batasuneko Estatu-kideetako herritar nazionalentzat, baita ere Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioan parte diren estatuetakoa herritarrentzat, betiere —nazioarteko hitzarmen bidez— estatu horiei ere eragiten badie EBko estatu kideetako herritarrentzat aurreikusitako araubide juridikoak.
- c) Atzerritar-identifikazioaren zenbakia —agirian jasotakoa, indarrekoa eta agintari espainiarrek emandakoa—; edo, agiri horien titular ez izanez gero, indarreko pasaportez-zenbakia —jatorri estatuko agintariak emandakoa—, baldin eta paragrafo honen aurreneko zatian adierazitako estatuetakoa herritar nazionalak badira, non eta ez duten, Nazioarteko Itun edo Akordio bidez, bisatu-salbuespenezko araubide berezia —muga trafikotxikiaren arloan— erroldatu gura den udalerriarekin; kasu horietan bisatua eskatuko baita.
- d) Egoera zibila.

8.- Administrazio Prozeduraren Legearen 53. artikulua arabera —Administrazio-prozeduran interesdun denaren eskubideak—, zehapen-prozeduren kasuan, presuntziosko erantzuleek eskubide hauek izango dituzte:

- a) Jakinarazpen batean jasotzea: zer egitate leporatzen zaien, egitate hori zer arau-hauste izan daitekeen eta zer zehapen ezar dakiekeen; orobat, instruktorea nor den, zehapena jartzeko eskumena zer agintaririk duen, eta zer arauk esleitzen dion eskumen hori.
- b) Jakinarazpen batean jasotzea, bakarrik: zer egitate leporatzen zaien eta zer zehapen ezar dakiekeen.
- c) Inolaz ere ez da adieraziko instruktorea nor den, datuak babesteko legea urra baitezake horrek.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

9.- Administrazio Prozeduraren Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, administrazio-ebazpenak eta -egintzak ematen dituen organoak jakinarazi egingo dizkie beren eskubide eta interesak ukitzen dizkien interesdunei, ondorengo artikuluetan aurreikusitako moduan.

- a) Jakinarazpen oro bost eguneko epean egin beharko da, egintza ematen den egunetik kontatuta, eta ebazpenaren testu osoa jaso beharko du.
- b) Jakinarazpen oro hamabost eguneko epean egin beharko da, egintza ematen den egunetik kontatuta, eta ebazpenaren testu osoa jaso beharko du.
- c) Jakinarazpen oro bi eguneko epean egin beharko da, egintza ematen den egunetik kontatuta, eta ebazpenaren testu osoa jaso beharko du.
- d) Jakinarazpen oro hamar eguneko epean egin beharko da, egintza ematen den egunetik kontatuta, eta ebazpenaren testu osoa jaso beharko du.

10.- Euskadiko 4/2005 Legea, Gizon eta Emakumeen Berdintasunari buruzkoa, honako hauei aplikatuko zaie: (Adieraz ezazu erantzun OKERRA)

- a) Autonomia Erkidegoko Administrazioa, haren erakunde autonomoak eta haren menpean edo hari lotuta dauden ente publikoak.
- b) Foru-administrazioa, haren erakunde autonomoak eta haren menpean edo hari lotuta dauden ente publikoak.
- c) Sektore pribatua, legean bertan adierazten den moduan.
- d) Estatuko Administrazioa.

11.- Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea...

- a) emakumeen elkarteei dagokie.
- b) udalei dagokie.
- c) foru-aldundiei dagokie.
- d) Eusko Jaurlaritzari dagokio.

12.- Izaera pertsonaleko datuak dira:

- a) Pertsona fisiko nahiz juridiko identifikatu nahiz identifikagarriei dagokien edozein informazio.
- b) Pertsona fisiko nahiz juridikoei dagokien edozein informazio pribatu.
- c) Pertsona fisiko identifikatu nahiz identifikagarriei dagokien edozein informazio.
- d) Egoera zibilari, adinari eta bizilekuari buruzko datuak.

13.- Zigor Kodearen 20. artikulua arabera, erantzukizun kriminaletik salbuetsita daude:

- a) Prozeduraren edozein unetan, eta ahozko epaiketa egin aurretik, biktimari eragindako kaltea konpondu edo horren ondoreak murriztu dituztenak.
- b) Errealitatearen kontzientzia modu larrian aldatuta duena, jaiotzatik edo haurtzarotik oharmenean aldakuntzak jasateagatik.
- c) Prozedura judiziala beren aurka doala jakin aurretik, arau-haustea agintaritzari aitortu diotenak.
- d) Probokazio bati erantzuten diotenak.

14.- Zigor Kodearen 33. artikulua arabera, zigor astunak dira:

- a) Animaliekin zerikusia duen lanbide, ogibide edo merkataritzan aritzeko eta animaliak edukitzeko desgaitasuna berezia, urtebete eta egun batetik bost urte arte.
- b) Bost urte baino gehiagorako desgaitasuna bereziak.
- c) Hiru hilabete baino gehiagoko isuna.
- d) Leku jakin batzuetan bizilekua izateko edo leku horietara joateko eskubideaz gabetzea, sei hilabete baino gutxiagorako.

15.- Guraso-ahala kentzea...

- a) ez da zigorra.
- b) zigor ez hain astuna da.
- c) zigor arina da.
- d) zigor astuna da.

16.- Gidatzen ikasten ari direnek eramanki zirkulatzen duten ibilgailuen kasuan, gidaritzat jotzen da...

- a) managailu gehigarrien ardura daukan pertsona.
- b) gidari profesionala.
- c) direkzioaren mekanismoa darabilen edo ibilgailua bere aginduetara daraman pertsona,
- d) ohiko gidaria.

17.- Mugikortasun murriztuko pertsonentzako ibilgailua da...

- a) 350 kilotik gorako tara duena, fabrikazioz toki lauan orduko 45 kilometroko abiadura gainditu ezin duena, disfuntzio edo ezintasun fisikoren bat duten pertsonentzat bereziki egina (eta ez egokitu hutsa).
- b) 350 kilotik gorako tara ez duena, fabrikazioz toki lauan orduko 50 kilometroko abiadura gainditu ezin duena, disfuntzio edo ezintasun fisikoren bat duten pertsonentzat bereziki egina.
- c) 350 kilotik gorako tara duena, fabrikazioz toki lauan orduko 45 kilometroko abiadura gainditu ezin duena, disfuntzio edo ezintasun fisikoren bat duten pertsonentzat bereziki egina (edo, besterik gabe, egokitua).
- d) 350 kilotik gorako tara ez duena, fabrikazioz toki lauan orduko 45 kilometroko abiadura gainditu ezin duena, disfuntzio edo ezintasun fisikoren bat duten pertsonentzat bereziki egina (eta ez egokitu hutsa).

18.- Ibilgailuaren masari —baimendutako ekipamendu finkoarekin, zerbitzuko langilerik, bidaiaririk eta zamarik gabe, urez, erregaiz, labaingarriz, ordezeko piezez, erremintez eta arauzko osagarriez hornituta— honela deitzen zaio:

- a) Tara.
- b) Kargapeko masa.
- c) Baimendutako gehieneko masa.
- d) Masa.

19.- Eskumen hauetatik, zein ez dagokie udalerriei?:

- a) Kirol-probak baimentzea, oso-osorik hirigunean barrena egitekoak direnean, zeharbideak salbu.
- b) Ibilgailuek zirkulatzeko aldi baterako eta behin-behineko baimenak ematea.
- c) Hiriguneko bideak ixtea, beharrezkoa denean.
- d) Ingurumenaren arloko arazoak direla eta, hiri barruko bideetan zenbait ibilgailuren zirkulazioa mugatzea.

20.- Ibilgailuaren titularraren obligazioa da... Adieraz ezazu baieztapen **OKERRA**:

- a) Ibilgailuaren matrikula-plakak irakurtzea edo hura identifikatzea galarazten duen oztoporik ez duela egiaztatzea.
- b) Gidabaimena inoiz lortu ez duenari ibilgailua gidatzen ez uztea.
- c) Arau-haustea gertatu zen unean ibilgailuaren gidari zenaren identifikazioa Administrazioari ematea.
- d) Trafikoko Buruzagitza Nagusia erakunde autonomoaren Ibilgailuen Erregistroari errentariaren identitatea jakinaraztea, ibilgailua epe luzerako alokatzen duelarik.

21.- Errepide arruntetarako finkatutako gehieneko abiadurak, zeharbideetan izan ezik,...

- a) Orduko 20 kilometroan gainditu ahal izango dituzte autoek eta motorrek, abiadura horiek baino polikiago zirkulatzen duten ibilgailuak aurreratzean.
- b) Ezingo dira inoiz ere gainditu.
- c) Orduko 15 kilometroan gainditu ahal izango dituzte autoek eta motorrek, abiadura horiek baino polikiago zirkulatzen duten ibilgailuak aurreratzean.
- d) Orduko 20 kilometroan gainditu ahal izango dituzte autoek eta motorrek, beste ibilgailu batzuk aurreratzean.

22.- Seinalerik ez badago, gidaria beharturik dago ibilgailu hauei pasatzen uztera: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

- a) Zolatutako bidetik zirkulatzen dutenei, berak zolatu gabekotik zirkulatzen badu.
- b) Errailen gainetik zirkulatzen dutenei.
- c) Eskuinetik datozkionei bakarrik.
- d) Biribilguneen barruan zirkulatzen dutenei, berak haietara sartu nahi duelarik.

- 23.- Ibilgailu baten gidariak igarotzeko lehentasuna du, animalien aldean:
- a) Beti.
 - b) Ibilgailuarekin beste bide batera sartzeko jiratzean animaliak badaude hura zeharkatzen, nahiz eta haienezako pasabiderik ez izan.
 - c) Abelbide seinalezatuetan bakarrik.
 - d) Ibilgailuak animaliak igarotzen ari diren bazterbide bat zeharkatzen duenean.
- 24.- Ematen diren puntuei gagozkielarik, adieraz ezazu baieztapen hauetatik zein den zuzena:
- a) Gidatzeko baimen edo lizentziaren jabeari hamabost puntuko kreditua emango zaio hasieran.
 - b) Salbuespen gisa, zenbait kasutan, zortzi puntuko kreditua emango da hasieran.
 - c) Hiru urte igarotzen direlarik puntuak galtzea dakarten arau-hausteak egiteagatik administrazio-bidean zigor irmorik jaso gabe, puntu-galera partzialak eragindako gidatzeko baimen edo lizentziaren titularrak hamabost puntuko kreditu osoa berreskuratuko du.
 - d) Puntuak kentzea dakarren egitea edozein motatako ibilgailua gidatzearen ondorioz gertatzen delarik ere galduko dira puntuak.
- 25.- Arau-hauste larriak dira: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)
- a) Arauzko argiak erabili gabe zirkulatzea.
 - b) Trafikoa zaintzeaz arduratzen diren agintaritzaren agenteen seinale eta aginduak ez errespetatzea.
 - c) Ibilgailu bat behar den gidatzeko baimen edo lizentziarik gabe gidatzea.
 - d) Zirkulazio-baimena baliogabetuta duen ibilgailu batekin zirkulatzea.
- 26.- Arau-hauste oso larriak dira: Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**.
- a) Ausarkeriaz gidatzea.
 - b) Ezarritakoaren kontrako noranzkoan zirkulatzea.
 - c) Ibilgailu bat behar den gidatzeko baimen edo lizentziarik gabe gidatzea.
 - d) Semaforo baten argi gorria ez errespetatzea.
- 27.- Bide publikoan behar den baimenik gabe obrak egitea, baita seinaleztapen iraunkorra nahiz aldi baterakoa kentzea, ezkutatzea, aldatzea edo hondatzea ere,...
- a) Falta arina da.
 - b) Falta astuna da.
 - c) Falta oso astuna da.
 - d) Ez da faltatzat jotzen.
- 28.- Hurrei eusteko sistemei gagozkielarik, ibilgailuaren gidaria...
- a) ez erabiltzearen erantzulea izango da, beti eta kasu guztietan.
 - b) ez erabiltzearen erantzulea izango da, gidari profesionala baldin bada.
 - c) ez erabiltzearen erantzulea izango da, salbu eta gidari profesionala bada.
 - d) ez da ez erabiltzearen erantzulea izango haurrak gurasoekin bidaiatzen badu.
- 29.- Trafikoa zaintzeaz arduratzen diren agintaritzaren agenteek, eman zaizkien zereginetan dihardutelarik, salatu egin beharko dituzte ikusten dituzten arau-hausteak. Zirkulazioko egintzak direla-eta egindako salaketetan datu hauek agertu behar dira beti:
- a) Ustezko arau-haustea egin den ibilgailuaren identifikazioa.
 - b) Salatzailearen izen-abizenak eta helbidea.
 - c) Gertaeraren deskribapen laburra, eta lekua edo tartea, data eta ordua.
 - d) Salatzailearen izen-deiturak eta helbidea, edo, agintaritzaren agentea bada, identifikazio-zenbaki profesionala.

- 30.- Salaketaren jakinarazpena geroago egin ahal izango da...
- a) Beti.
 - b) Inoiz ez.
 - c) Ibilgailua aparkatuta egonik, gidaria bertan ez dagoenean.
 - d) Salatzailearen irizpidearen abera.
- 31.- Segurtasun uhala, hurrei eusteko sistemak, kaskoa eta babesteko bestelako gailuak ez erabiltzea arau-haustea da, eta berekin dakar puntu hauek galtzea:
- a) 3 puntu.
 - b) 4 puntu.
 - c) 6 puntu.
 - d) Erantzunetako bat ere ez da zuzena.
- 32.- Radar-inhibitzailea edo zinemometroa nahiz trafikoa zaintzeko sistemen funtzionamendua oztopatzen duen beste edozein mekanismo instalatuta duen ibilgailua gidatzea arau-haustea da, eta puntu hauek kentzea dakar berekin:
- a) 3 puntu.
 - b) 4 puntu.
 - c) 6 puntu.
 - d) Erantzunetako bat ere ez da zuzena.
- 33.- Autobia eta autobietan atzeraka ibiltzea arau-haustea da, eta puntu hauek kentzea dakar berekin:
- a) 3 puntu.
 - b) 4 puntu.
 - c) 6 puntu.
 - d) Ez da arau-haustea arriskurik sortzen ez badu.
- 34.- Segurtasun uhala, hurrei eusteko sistemak, kaskoa eta babesteko bestelako gailuak ez erabiltzea arau-haustea da, eta berekin dakar puntu hauek galtzea:
- a) 3 puntu.
 - b) 4 puntu.
 - c) 6 puntu.
 - d) Erantzunetako bat ere ez da zuzena.
- 35.- Enuntziatu hauetatik, eta Euskal Herriko Poliziari buruzko Legean xedatutakoaren ildotik,... (Adieraz ezazu baieztapen **OKERRA**)
- a) Bost mila biztanle edo gehiago duten Euskal Herriko udalerriek beren Polizia Kidegoak sor ditzakete.
 - b) Salbuespen gisa, bost mila biztanle baino gutxiago duten udalerriek sor ditzakete beren Udaltzaingoak, zalantzarik gabe premiazkoak edo egokiak direnean. Kasu horretan, Kidegoa sortzeko Eusko Jaurlaritzak baimena eman behar du aurretik.
 - c) Udaltzaingoak sortzeko erabakiek Udaltzako kideen legezko kopuruaren gehiengo soilak aldeko botoa ematea eskatzen dute.
 - d) Udaltzaingoek ezein kasutan ere ez dute izango antolakunde- eta ihardute-menpekotasunik Eusko Jaurlaritzarekiko edo euskal Autonomi Elkarte Administrazioarekiko, ez eta honen esanerako Kidegoarekiko ere, horren menpekotasuna bakoitzaren udalerrikoarena soilik izango da baizik.

36.- Udaltzaingoen zeregin hauek betetzen dituzte: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

- a) Polizia administratiboa izatea, bere eskumenen esparruan, ordenantza, bando eta besteko udal xedapen eta ekintzei dagokienez, eta, halaber, ingurumenaren eta ingurunearen babesaren alorreko legedia bete dadila zaintzea, arlo horretako eskumen lokalen esparruan.
- b) Gune publikoak zaintzea, eta manifestazioak eta jendetza handia biltzen deneko ekintzak zaintzen laguntzea, lan hori egiteko eskatzen bazaie.
- c) Hiriguneko zirkulazio istripuetako argiketak bideratzea.
- d) Istilu pribatuak ebazten laguntzea, hori egiteko eskatzen bazaie.

37.- Genero indarkeriaren kontra Babesteko Neurri Integralei buruzko 2004ko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren printzipio gidariak dira: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

- a) Botere publikoek, beren eskumenen esparruan, berariazko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak bultzatuko dituzte, genero-indarkeria prebenitzeko xedearekin.
- b) Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideak sendotzea, galdatzeko modukoak direnak Administrazio publikoetan; modu horretara ziurtatzen da ondore horietarako ezarritako zerbitzuetara jotzea, azkar, gardentasunez eta eragingarritasunez.
- c) Legearen helburuek ezarritako gutxienekoak bete arte, informazio, arreta, larrialdi, babes eta sendabide osorako gizarte-zerbitzuak indartzea, bai eta sistema bat ezartzea, udalerrri eta autonomia-erkidego mailan aldeztu aurretik zeuden zerbitzuak eragingarritasun gehiagorekin koordinatzeko.
- d) Lan-esparruan eta funtzionarioen esparruan eskubideak bermatzea, lan-harremanen eta enplegu publikoaren beharrezkoak uztartzen dituztenak genero-indarkeria jasaten duten emakume langileen edo funtzionarioen inguruabarrekin.

38.- Herritarren Segurtasunaren 4/2015 Lege Organikoaren helburuak dira... (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

- a) Oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen eta ordenamendu juridikoan aitortu eta babestutako gainontzeko eskubideen erabilera libre eta babestea.
- b) Erakundeen behar bezalako funtzionamendua bermatzea.
- c) Herritarren segurtasuna eta bizikidetzaren babestea.
- d) Atzeritarrei ezin izango dizkiete jatorrizko agiriak kendu, zigor-arloko ikerketa judizialen barruan izan ezik.

39.- Herritarren Segurtasunaren 4/2015 Lege Organikoaren arabera, delituak ikertzeko eta prebenitzeko eginkizunak betetz, bai eta zigor- eta administrazio-arloko arau-haustek zehatzeko ere, segurtasun-indar eta -kidegoetako agenteek pertsonen beren burua identifikatzeko eskatu ahal izango diete honako egoera hauetan: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

- a) Beti.
- b) Arau-hauste bat egiten parte hartu ahal izan duten zantzuak daudenean.
- c) Baldin eta, gertatutako inguruabarren arabera, nortasuna egiaztatzea zentzuz beharrezkoa dela jotzen badute delitu bat egin dadin prebenitzeko.
- d) Pertsona bati eskatu ahal izango diote, behar izanez gero, polizia-instalazioetara laguntzeko, berehalakoan jakinarazten diotelarik, ulertzeko moduan, eskaera horren arrazoiak.

40.- Zigor Kodearen 18. artikulua araberaz: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

a) Zirikatzea dago, delitu bat egitera zuzenean bultzatzen denean inprimatze, irrati-hedatze edo horien antzeko eragingarritasuna duten bideetatik beste edozein erabiliz, baldin eta publizitatea errazten duen bidea bada, bai eta delitu bat egitera bultzatzen denean pertsona multzo baten aurrean ere.

b) Apologia da, kode honen ondoreetarako, krimena edo haren egilea goratzen duten ideiak edota doktrinak azaltzea, pertsona multzo baten aurrean jardunda, edozein hedabide erabilita ere. Apologia zirikatze-era gisa bakarrik joko da delitutzat, betiere, haren izaera eta inguruabarrak kontuan izanik, delitu egitera zuzenean bultzatzea den neurrian.

c) Zirikatzea beti zigortuko da.

d) Zirikatzearen ostean delitu egiten bada, zirikatze hori indukzio gisa zigortuko da.

41.- Zigor Kodearen 20. artikulua araberaz, erantzukizun kriminaletik salbuetsita daude: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

a) Arau-hauste penala egitean, egitatea zilegizkoa ez dela ulertu ezin duena edo ulermen horren araberaz jardun ezin duena, edozein anomalia edo aldakuntza psikikok eraginda.

b) Buru-nahaste iragankorrak ez du zigoretik salbuetsiko subjektuak berak hori eragin duenean delitu egiteko asmoz, edo subjektuak delitu egitea aurreikusi duenean, edo aurreikusi behar izango zuenean.

c) Errealitatearen kontzientzia modu larrian aldatuta duena, jaiotzatik edo haurtzarotik oharmentean aldakuntzak jasateagatik.

d) Pertsona edo norberaren nahiz beste baten eskubideak defendatzeko jarduten duena, beti eta kasu guztietan.

42.- Zigor Kodearen 22. artikulua araberaz, erantzukizun kriminala astuntzen duten inguruabarrak dira: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

a) Egitatea maltzurkeriaz gauzatzea.

b) Prezio, sari edo hitzemandaren bidez egitatea gauzatzea.

c) Nahita eta bihotz-gogorrez handitzea biktimaren sufrimendua, delitu egiteko behar ez diren pairamenak eraginez.

d) Eraso ez legitimoa.

43.- Delituengatik erantzukizun kriminala dute... (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

a) Sopikunek.

b) Egitatea eurek bakarrik, taldeka edo beste edonor bitarteko gisa erabiliz, gauzatzen dutenak.

c) Hedapenerako bide edo euskarri mekanikoak erabiliz egindako delituen ondorioz, modu kriminalean erantzungo dute euren kabuz edo euren ondasunez faboratu dituztenek.

d) Hura burutzeko ezinbestekoa den laguntzaren bat eman dutenak.

44.- Zigor Kodearen 33. artikulua araberaz, zigor oso astunak dira: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

a) Bost urte baino gehiagorako desgaikuntza bereziak.

b) Leku jakin batzuetan bizilekua izateko edo leku horietara joateko eskubideaz gabetzea, sei hilabetetik bost urtera bitartean.

c) Ibilgailu motordun edo motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz zortzi urte baino gehiagorako gabetzea.

d) Armak eduki eta eramateko eskubideaz zortzi urte baino gehiagorako gabetzea.

45.- Biktimaren Estatutuan xedatutakoaren ildotik, ikertzeko fasean honako neurri hauek hartu ahal izango dira biktimak babesteko: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

- a) Deklarazioa xede horretarako bereziki sortu edo egokitutako tokietan hartzea.
- b) Deklarazioa biktimari kalteak murrizteko edo mugatzeko prestakuntza berezia jaso duten profesionalak hartzea, edo horien laguntzaz.
- c) Biktima berari hartu beharreko deklarazio guztiak pertsona berak hartzea, betiere hori ez bada nabarmen kaltegarria prozesuaren garapenarentzat edo epaile edo fiskal batek zuzenean deklarazioa hartu behar ez badu.
- d) Baldin eta sexu-esplotazioko xedeekin salerostearen biktimak badira, deklarazioa biktimaren sexu bereko pertsona batek hartzea, beti eta kasu guztietan.

46.- Biktimaren Estatutuan ezarritakoaren ildotik, adingabeak direnean, neurri hauek aplikatuko dira, besteak beste: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

- a) Deklarazioa biktimari kalteak murrizteko edo mugatzeko prestakuntza berezia jaso duten profesionalak hartzea, edo horien laguntzaz.
- b) Biktimak eta egitateen ustezko egileak elkar ikus dezaten saihesteko neurriak (baita froga gauzaten den unerako ere); horretarako komunikazioaren teknologiak erabili ahal izango dira.
- c) Defendatzaile judizial bat izendatzea, beti eta kasu guztietan.
- d) Ikertzeko fasean jasotako deklarazioak ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz grabatuko dira, eta eman ahal izango dituzte epaiketean Prozedura Kriminalaren Legeak zehaztutako kasu eta baldintzetan.

47.- Biktimaren Estatutuan ezarritakoaren ildotik, biktimatzat jotzen dira...

- a) bere buruaren edo ondarearen gaineko kalterik pairatu duen pertsona fisikoak bakarrik.
- b) pertsona fisikoak eta legez bananduta ez dauden ezkontideak bakarrik.
- c) biktima bakarrik, eta, izanez gero, legezko ordezkaria.
- d) zuzeneko biktima eta zeharkako biktimak, halakotzat ulerturik legez edo izatez bananduta ez dagoen ezkontidea eta hiltzeko edo desagertzeko momentuan haiekin batera bizi ziren biktimaren edo legez edo izatez banandu gabeko ezkontidearen seme-alabak; heriotza edo desagerketa gertatu arte biktimari afektibitatezko antzeko harremanagatik lotuta zegoen pertsona eta biktima hil edo desagertu zenean berarekin bizi ziren horren seme-alabak; zaintzapean zituen guraso eta ahaideak –lerro zuzenean edo alboko lerroz hirugarren graduaren barruan– eta haren tutoretza edo kuradoreztapean edo familia-harreraren araubidepean dauden pertsonak.

48.- Biktimaren Estatutuan ezarritakoaren ildotik, eta itzulpen eta interpretaziorako eskubideari gagozkiolarik,... (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**).

a) Gaztelania edo dena delako jarduketan erabilitako hizkuntza ofiziala hitz egiten edo ulertzen ez duen biktima orok eskubidea izango du: ulertzen duen hizkuntza bat mintzatzen duen interprete batek doako laguntza ematekoa, epaileak, fiskalak edo poliziako funtzionarioek ikerketa-fasean deklarazioa hartzen diotenean, edo epaiketan edo beste edozein ahozko ikustalditan lekuko gisa esku hartzen duenean.

b) Biktimari interpretazioa edo itzulpena ez emateko erabaki judizialaren aurka ezingo da apelazio-errekurtsorik jarri.

c) Salbuesenez, agirien idatzizko itzulpenaren ordeztu haien edukiaren hitzezko laburpena egin ahal izango zaio, ulertzen duen hizkuntza batean betiere, baldin eta era horretan prozesuaren ekitatea behar bezala bermatzen bada.

d) Interpretarearen laguntza bideokonferentzia edo telekomunikazioko beste edozein bidez eman ahal izango da, betiere epaileak edo auzitegiak, ofizioz edo alderdiak eskatuta, ez badu erabakitzen interpretea zuzenean egon dadin biktimaren eskubideak zaintzearen.

49.- Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko Babesa emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak helburua da: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

a) Edozein gizarte-esparrutan —bereizkeriaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonek emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa— emakumeen aurka erabiltzen den indarkeriaren kontra egitea.

b) Indarkeriaren kontra egitea, indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitza ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonek emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa.

c) Lege honen bitartez, babes-neurri osoak ezartzen dira, zeinen helburua baita halako indarkeria prebenitu, zehatu eta ezabatzea, eta indarkeria horren biktima diren emakumeei, haien seme-alaba adingabeei eta haien tutoretzapean, zaintzapean edo jagoletzapean dauden adingabeei babesa ematea.

d) Lege honek aipatu genero-indarkeriatzat ulertzen da indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere.

49.- Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko Babesa emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak Zigor Kodearen 153. artikulua aldatu zuen, eta honela idatzita geratu zen hori:

a) Norbaitek, edozein bide edo prozedura erabiliz, urripen psikikoa edo lesioa eragiten badio beste bati, urripen edo lesio hori kode honetan delitu gisa definituta egon gabe, edota norbaitek beste bati kolpe edo egitezko tratu txarra ematen badio lesiorik eragin gabe, ofenditua horren emaztea denean edo izan denean, edo horrekin antzeko maitasun-harremanak dituen edo izan dituen emakumea denean, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan, edota ofenditua, bereziki, pertsona ahula izanik, horrekin bizi denean, horri sei hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra edo hogeita hamaika egunetik laurogei arte gizartearentzako lan egitea ezarriko zaio, eta, beti, armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetzea, urtebete eta egun batetik hiru urte arte, eta, era berean, epaile edo auzitegiak egoki baderitzo adingabe edo ezgaiaren intereserako, guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo familia-harrera egikaritzeko desgaikuntza berezia, bost urte arte.

b) Norbaitek, edozein bide edo prozedura erabiliz, urripen psikikoa edo lesioa eragiten badio beste bati, urripen edo lesio hori kode honetan delitu gisa definituta egon gabe, edota norbaitek beste bati kolpe edo egitezko tratu txarra ematen badio lesiorik eragin gabe, ofenditua horren emaztea denean edo izan denean, edo horrekin antzeko maitasun-harremanak dituen edo izan dituen emakumea denean, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan, edota ofenditua, bereziki, pertsona ahula izanik, horrekin bizi denean, horri hiru hilabetetik sei hilabete arteko espetxealdi-zigorra edo hogeita hamaika egunetik laurogei arte gizartearentzako lan egitea ezarriko zaio, eta, beti, armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetzea, urtebete eta egun batetik hiru urte arte, eta, era berean, epaile edo auzitegiak egoki baderitzo adingabe edo ezgaiaren intereserako, guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo familia-harrera egikaritzeko desgaikuntza berezia, bost urte arte.

c) Norbaitek, edozein bide edo prozedura erabiliz, urripen psikikoa edo lesioa eragiten badio beste bati, urripen edo lesio hori kode honetan delitu gisa definituta egon gabe, edota norbaitek beste bati kolpe edo egitezko tratu txarra ematen badio lesiorik eragin gabe, ofenditua horren emaztea denean edo izan denean, edo horrekin antzeko maitasun-harremanak dituen edo izan dituen emakumea denean, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan, edota ofenditua, bereziki, pertsona ahula izanik, horrekin bizi denean, horri sei hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra edo hogeita hamaika egunetik laurogei arte gizartearentzako lan egitea ezarriko zaio, eta, beti, armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetzea, urtebete eta egun batetik hiru urte arte, eta, era berean, epaile edo auzitegiak egoki baderitzo adingabe edo ezgaiaren intereserako, guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo familia-harrera egikaritzeko desgaikuntza berezia, zazpi urte arte.

d) Norbaitek, edozein bide edo prozedura erabiliz, urripen psikikoa edo lesioa eragiten badio beste bati, urripen edo lesio hori kode honetan delitu gisa definituta egon gabe, edota norbaitek beste bati kolpe edo egitezko tratu txarra ematen badio lesiorik eragin gabe, horri sei hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra edo hogeita hamaika egunetik laurogei arte gizartearentzako lan egitea ezarriko zaio, eta, beti, armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetzea, urtebete eta egun batetik hiru urte arte, eta, era berean, epaile edo auzitegiak egoki baderitzo adingabe edo ezgaiaren intereserako, guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo familia-harrera egikaritzeko desgaikuntza berezia, bost urte arte.

51.- Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren arabera, segurtasun-indar eta -kidegoen kideen jardunaren oinarriko printzipioak dira: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

- a) Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa erabat errespetatuz burutzea beren zeregina.
- b) Erabateko neutraltasun politikoz eta inpartzialtasunez jardutea, eta, hortaz, arraza, erlijioa edo iritzia dela-eta inongo diskriminaziorik ez egitea.
- c) Zintzotasunez eta duintasunez jardutea. Bereziki uko egin beharko diote ustelkeria-ekintza orori, eta halakoen kontra zalantzarik gabe ekin.
- d) Laneko jardunean hierarkia- eta mendekotasun-printzipioei eustea, zor den obediendiaren kasuan izan ezik.

52.- Euskal Herriko Poliziaren Legean jasota dagoen Deontologia Kodearen arabera, Euskal Herriko Poliziako kideek... (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

- a) Erabateko sekretua gorde beharko dute beren zereginak bete bitartean eskuratzen duten informazio guztiaren inguruan, salbu eta beren zereginak edo lege-xedapenek bestela jokatzera behartzen baditu.
- b) Behartuta daude, zerbitzuan dihardutenean bakarrik, legearen eta herritarren segurtasunaren alde esku-hartzera beti, eta istripuak, ezbehar publikoak nahiz zorigaitz partikularrak gertatzen direnean ere laguntzera.
- c) Beren zereginak betetzerakoan Euskal Herriko poliziako kideek behar besteko kemenez jardungo dute, eta arrazoizkoa denean bakarrik baliatuko dira indarraz. Beren esku dauden baliabideak erabiltzeko orduan, egokitasun, premia eta proportzionaltasun printzipioak hartuko dituzte kontutan.
- d) Euskal Herriko Poliziako kideek atxilotzen dituzten pertsonen eta zainpean dituztenen bizia eta osotasun fisikoa zainduko dituzte, eta beraien ohore eta duintasuna errespetatuko dituzte, bai eta legez dagozkien eskubideak.

53.- Euskadiko Poliziako kideak oro beren jardura profesionaleko ekintzen arduradun pertsonal eta zuzenak dira, Administrazioari horien ondorioz legokiokeen ondare-erantzukizuna gorabehera.

- a) Beti.
- b) Inoiz ez.
- c) Lege eta araudiak hautsi edo urratzen badituzte.
- d) Lege eta araudiak hautsi edo urratzen badituzte, nahiz eta erregelamendu-arauak urratu ahal izango dituzten beharrezko denean.

54.- Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateratua onartu zeneko martxoaren 2ko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, mugikortasun murriztuko pertsonentzako ibilgailuak ez diren autoen nahiz araudi bidez zehazten den gehieneko masa baimenduko ibilgailu berezien gidariak galtzadatik zirkulatu behar dute, eta ez bazterbidetik, salbu eta larrialdiko arrazoiren bat badute, eta, gainera, arau hauek bete behar dituzte: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

- a) Zirkulazioaren bi noranzkoak eta bi errei dituzten galtzadetan eskuineko erreitik zirkulatu behar dute, erreiak bide-marrez banatuta egon ala ez.
- b) Zirkulazioaren bi noranzkoak eta luzetarako bide-marra etenez banatutako hiru errei dituzten galtzadetan ere eskuineko erreitik zirkulatu behar dute, eta inola ere ez ezkerreneko erreitik.
- c) Noranzko bereko bi errei edo gehiagoko galtzadetatik herrian zirkulatzen denean, eta horiek luzetarako bide-marrez mugatuta badaude, beren helmugara iristeko erreirik egokiena erabili ahal izango dute, baina ezingo dira errei batetik bestera aldatzen ibili, ez

bada norabidea aldatzeko, aurreratzeko, gelditzeko edo aparkatzeko.

d) Herritik kanpo, noranzko bereko errei bat baino gehiagoko galtzadetan, eskuineneko erreitik zirkulatu behar dute normalean, eta inola ere ez ezkerrenekotik.

55.- Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateratua onartu zeneko martxoaren 2ko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera:

a) Errepide arruntetarako finkatutako gehieneko abiadurak, zeharbideetan izan ezik, orduko 10 kilometroan gainditu ahal izango dituzte autoek eta motorrek, abiadura horiek baino polikiago zirkulatzen duten ibilgailuak aurreratzean.

b) Errepide arruntetarako finkatutako gehieneko abiadurak, zeharbideetan izan ezik, orduko 20 kilometroan gainditu ahal izango dituzte autoek eta motorrek, abiadura horiek baino polikiago zirkulatzen duten ibilgailuak aurreratzean.

c) Errepide arruntetarako finkatutako gehieneko abiadurak, zeharbideetan izan ezik, orduko 12 kilometroan gainditu ahal izango dituzte autoek eta motorrek, abiadura horiek baino polikiago zirkulatzen duten ibilgailuak aurreratzean.

d) Errepide arruntetarako finkatutako gehieneko abiadurak, zeharbideetan izan ezik, ezingo dira inoiz ere gainditu.

56.- Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateratua onartu zeneko martxoaren 2ko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, araudi bidez zehazten den gehieneko masa baimendutik gorako ibilgailuek eta ibilgailu-taldeek, horretarako, 10 metrotik gorako luzerako ibilgailuek 50 metroko tartea utzi behar dute gutxienez, salbu eta... (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

a) Herrian.

b) Aurreratzea debekatuta dagoen tokietan.

c) Trafikoaren intentsitateak aurreratzeko aukerarik ematen ez duenean.

d) Beti eta kasu guztietan, salbuespenik gabe.

57.- Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateratua onartu zeneko martxoaren 2ko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 40. artikularen arabera, gelditzea debekatuta dago kasu hauetan: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

a) Ikuspen gutxiko bihurtze eta malda-gainaldeetan, horien inguruetan, eta tuneletan.

b) Trenbide-pasaguneetan, txirrindularientzako pasaguneetan eta oinezkoentzako pasaguneetan.

c) Erabiltzaile zehatz batzuen zirkulazio edo zerbitzurako soil-soilik gordetako errietan edo bide-zatietan.

d) Zama-lanetarako seinaleztatutako eremuetan.

58.- Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateratua onartu zeneko martxoaren 2ko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, arau-hauste larriak dira —76. art.—: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

a) Bide publikoan obrak egitea, hasi aurretik trafikoa arautu, antolatu eta kudeatzearen ardura duen agintaritzari jakinarazi gabe, baita obrak direla-eta agintaritzak horrek ematen dituen jarraibideak ez betetzea ere.

b) Arauzko argiak erabili gabe zirkulatzea.

c) Segurtasun-uhala, haurrei eusteko sistemak, kaskoa eta babesteko bestelako gailuak ez erabiltzea.

d) Arauzko argiak erabili gabe zirkulatzea bizikletaz.

59.- Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateratua onartu zeneko martxoaren 2ko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, arau-hauste larriak dira —76. art.—:

(Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

- a) Zama gaizki moldatuta zegoelako bidera erori den ibilgailu batekin zirkulatzea, gainerako erabiltzaileentzat arrisku larria sortuz.
- b) Ibilgailuaren neurritz gaineko okupazioa, esan nahi baita baimendutako plazen kopurua ehuneko 50 handitzea, gidariaren plaza kontatu gabe.
- c) Gidari orok duen obligazioa, ibilgailuaren matrikula-plakak irakurtzea edo hura identifikatzea galarazten duen oztoporik ez dagoela egiaztatzea, ez betetzea.
- d) Espainian arauz galdatzen diren administrazio-betekizunak betetzen ez dituelako baliorik ez duen gidabaimen baten titular izanik ibilgailu bat gidatzea.

60.- Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateratua onartu zeneko martxoaren 2ko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, arau-hauste larriak dira —77. art.—: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

- a) Zama gaizki moldatuta zegoelako bidera erori den ibilgailu batekin zirkulatzea, gainerako erabiltzaileentzat arrisku larria sortuz.
- b) Radar-inhibitzailea edo zinemometroa nahiz trafikoa zaintzeko sistemen funtzionamendua oztopatzen duen beste edozein mekanismo instalatuta duen ibilgailua gidatzea.
- c) Behar den administrazio-baimena ez duen ibilgailu batekin zirkulatzea, arauz galdatzen diren administrazio-betekizunak betetzen ez dituelako baliorik ez duen gidabaimen batekin, edo zirkulatzeko gaitzen duen administrazio-baimeneko baldintzak bete gabe.
- d) Gidabaimena inoiz lortu ez duenari ibilgailua gidatzen ez uzteko obligazioa ez betetzea.

LEHEN ARIKETA. BIGARREN PROBA. (40 galdera)

61.- Soziodemografia. Adieraz ezazu auzo hauetatik zein den biztanleriarik handiena duena:

- a) Alde zaharra
- b) Lakua-Arriaga
- c) Zabalgana
- d) San Martin

62.- Soziodemografia. Aukera ezazu zuzena:

- a) Gizon baino emakume gehiago dago Gasteizen; gizonen batez besteko adina emakumeena baino handiagoa da.
- b) Gizon baino emakume gehiago dago Gasteizen; emakumeen batez besteko adina gizona baino handiagoa da.
- c) Emakume baino gizon gehiago dago Gasteizen; gizonen batez besteko adina emakumeena baino handiagoa da.
- d) Emakume baino gizon gehiago dago Gasteizen; emakumeen batez besteko adina gizona baino handiagoa da.

63.- Soziodemografia. Adieraz ezazu zein den pertsona gehien biltzen dituen adin-tartea Gasteizen:

- a) 0 urtetik 17ra
- b) 18tik 34ra
- c) 35etik 54era
- d) 55urtetik gorakoak

64.- Soziodemografia. Adieraz ezazu zein den Gasteizen erroldatutako migratzaileen jatorri nagusia:

- a) Europa —Estatukoak salbu—.
- b) Amerika
- c) Asia
- d) Afrika

65.- Kaleak eta auzoak. Adieraz ezazu kale/auzo bikote **OKERRA**:

- a) Aiztogile kalea - Alde Zaharra
- b) Lantarongo Gazteluaren kalea - Ariznabarra
- c) Ama Vedruna - Txagorritxu
- d) Sefarad plaza - Judimendi

66.- Kaleak eta auzoak. Adieraz ezazu kale/auzo bikote **OKERRA**:

- a) Anglo-Vascoaren kalea - Salburua
- b) Kristo kalea - Abetxuku
- c) Heraclio Fournier kalea - Adurtza
- d) Simon Bolibar plaza - Done Jakue

67.- Kaleak eta auzoak. Adieraz ezazu kale/auzo bikote **OKERRA**:

- a) Aurelio Vera Fajardo Margolariaren kalea - Pilar
- b) Biasteri kalea - Zaramaga
- c) Larrugile kalea - Koroatzea
- d) Berpizkundearen plaza - Babesgabetuak

68.- Industrialdeak. Adieraz ezazu Jundizko industrialdearen kokapen geografikoa, Alde Zaharrarekiko.

- a) Iparra
- b) Hegoa
- c) Ekialdea
- d) Mendebaldea

69.- Industrialdeak. Adieraz ezazu Mantentze-lanen, Obren eta Lorategien udal instalazioak dauden industrialdea.

- a) Gamarra
- b) Oreitiasolo
- c) Jundiz
- d) Ehari-Gobeu

70.- Merkataritza-guneak. Adieraz ezazu baieztapen **OKERRA**:

- a) Boulevard merkataritza-gunea Zaramaga auzoaren ondoan dago.
- b) Antso Jakituna - Gorbeia ingurua erdialdeko merkataritza-eremua da.
- c) Handizkako azokak Jundizko industrialdean daude.
- d) Txikizkako azoka Babesgabetuen auzoan dago.

71.- Merkataritza-guneak. Adieraz ezazu baieztapen **OKERRA**:

- a) Almendrako azokak merkataritza-gune handia bihurtzen du Alde Zaharra hilerro, lehenengo larunbatean.
- b) Gasteiz hiribidean banku-erakunde ugari daude.
- c) Lorategi Hiria - Mendizorrotza ingurua merkataritza-eremu garrantzitsua da.
- d) Zabalgunean arropa-denda ugari daude.

72.- Gizarte-etxeak. Adieraz ezazu hauetako zein ez den:

- a) Pilar
- b) Iparralde
- c) Hegoalde
- d) Mendizorrotza

- 73.-** Gizarte-etxeak. Adieraz ezazu zen dagoen kokatua Alde Zaharrean:
- a) Landatxo
 - b) Ibaiondo
 - c) Arana
 - d) Aldabe
- 74.-** Zentro kulturalak. Beñat Etxepare antzokia. Adieraz ezazu kokapena.
- a) Alde zaharra
 - b) Iparralde gizarte-etxea
 - c) Ibaiondoko gizarte-etxea
 - d) Boulevard merkataritza-gunea
- 75.-** Zentro kulturalak. Montehermoso kulturunea. Adieraz ezazu kokapena.
- a) Alde zaharra
 - b) Iparralde gizarte-etxea
 - c) Ibaiondoko gizarte-etxea
 - d) Boulevard merkataritza-gunea
- 76.-** Zentro kulturalak. Goiuri jauregia. Adieraz ezazu kokapena.
- a) Alde zaharra
 - b) Iparralde gizarte-etxea
 - c) Ibaiondoko gizarte-etxea
 - d) Boulevard merkataritza-gunea
- 77.-** Instituzio eta erakunde ofizialak. Adieraz ezazu okerreko kokapena.
- a) Gobernuaren Euskadiko Ordezkaritza - Frai Francisco Vitoria ibilbidea
 - b) Batzar Nagusiak - Vicente Goikoetxea kalea
 - c) Eusko Legebiltzarra - Donostia kalea
 - d) Arabako Foru Aldundia - Probintzia plaza
- 78.-** Instituzio eta erakunde ofizialak. Adieraz ezazu okerreko kokapena.
- a) Ajuriaenea jauregia - Frai Francisco Vitoria ibilbidea
 - b) Gobernu Ordezkariordeztza - Olagibel kalea
 - c) Lehendakaritza - Nafarroa kalea
 - d) Justizia-jauregia - Wellingtono Dukearen kalea
- 79.-** Eraikin historikoak eta leku turistikoak. Adieraz ezazu okerreko kokapena.
- a) Sokaren Etxea - Aiztogile kalea
 - b) Aduana Etxea - Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kalea
 - c) Santuaren Etxea - Armentia
 - d) San Joan ermita - Arriagako parkea
- 80.-** Eraikin historikoak eta leku turistikoak. Adieraz ezazu okerreko kokapena.
- a) San Bizente eliza - Santa Maria plaza
 - b) San Migel eliza - Andre Maria Zuriaren plaza
 - c) San Pedro eliza - Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kalea
 - d) Aingeruen Andre Mariaren eliza - Bastiturri kalea
- 81.-** Zerbitzu publikoak. Adieraz ezazu okerreko kokapena.
- a) Ertzaintzaren polizia-etxea – Forondako atea
 - b) Poliziaren polizia-etxea – Gasteiz hiribidea
 - c) Guardia Zibila – Sansomendi kalea
 - d) Udaltzaingoa – Agirrelanda kalea

- 82.-** Zerbitzu publikoak. Adieraz ezazu okerreko kokapena.
- a) Euskal Osasun Zerbitzua – Gasteiz hiribidea
 - b) Euskal Enplegu Zerbitzua – Jose Atxotegi kalea
 - c) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea – Alaba Jeneralaren kalea
 - d) Ibilgailuen Azterketa Teknikoa - Lerlandabide
- 83.-** Ibilbideak. Santiago ospitalearen eta AUOren arteko biderik laburrena, oinez, kale honetatik pasatzen da:
- a) Txile kalea
 - b) Kuba kalea
 - c) Frantzia kalea
 - d) Puerto Rico kalea
- 84.-** Ibilbideak. Udal bulego teknikoaren eta udaletxearen arteko biderik laburrena, bizikletaz, kale honetatik pasatzen da:
- a) Manuel Iradier kalea
 - b) Magdalena kalea
 - c) Ramiro Maeztu kalea
 - d) San Antonio kalea
- 85.-** Ibilbideak. Justizia-jauregiaren eta autobus-geltokiaren arteko biderik laburrena, kotxez, kale honetatik pasatzen da:
- a) Honduras kalea
 - b) Juan Garai kalea
 - c) Don Bela Kondearen kalea
 - d) Forondako atea
- 86.-** Udalaren egitura. Biltzar eta Turismo Zerbitzua sail honen barruan dago:
- a) Ogasuna
 - b) Udal Administrazioa
 - c) Gizarte Politikak eta Osasun Publikoa
 - d) Enplegua eta Garapen Ekonomiko Iraunkorra
- 87.-** Udalaren egitura. Zerbitzu Osagarriak sail honen barruan dago:
- a) Ogasuna
 - b) Udal Administrazioa
 - c) Partaidetza eta Gizarte Etxeak
 - d) Funtzio Publikoa
- 88.-** Udalaren egitura. Gasteizko Udalaren erakunde autonomoa da:
- a) Luis Aranburu Musika Eskola
 - b) TUVISA
 - c) AMVISA
 - d) XXI Zabalgunea
- 89.-** Udalaren egitura. Adieraz ezazu hauetako zein ez den gobernu-arlo bat:
- a) Alkatetza, Ekonomia eta Funtzio Publikoaren Arloa
 - b) Gizarte Arloa eta Udal Administrazioarena
 - c) Kultura, Hezkuntza eta Kirol Arloa
 - d) Hirigintzaren, Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Arloa
- 90.-** Udalaren egitura. Adieraz ezazu zerbitzu hauetako zein ez den udal zuzendaritza-organo bat:
- a) Aholkularitza Juridikoa
 - b) Organo Ekonomiko Administrazioa
 - c) Kontu-hartzailetza eta Ikuskaritza
 - d) Udalbatzaren Bulegoa

- 91.-** Izaera urbanoko bideetako erabilerak, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna. Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planaren helburuak. Aukera OKERRA adierazi:
- a) Hiri-garraio publikoaren eta bizikletaren erabilera sustatzea.
 - b) Oinezkoen alderdien sarea handitzea.
 - c) Kalitateko espazio publikoa berreskuratzea, mugikortasunaz edo joan-etorriez bestelakoetarako.
 - d) Autoen zirkulazioa bigarren mailako bide jakin batzuetan barrena bideratzea.
- 92.-** Izaera urbanoko bideetako erabilerak, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna. Seinaleztapena. Aukera OKERRA adierazi:
- a) Ezingo da zirkulazio-seinalerik jarri alde zurretik udal baimena eskuratu gabe.
 - b) Informazio-seinaleak jartzea baimentzen da.
 - c) Ezingo da publizitaterik jarri zirkulazio-seinaleetan, ezta horien ondoan ere.
 - d) Debekatuta egongo da erabiltzaileei semaforoak, seinaleak, pertsonak eta zirkulatzen ari diren ibilgailuak behar bezala ikustea galarazi edo zailduko liekeen nahiz arreta galtzea ekar lezakeen markesina, kartel, iragarki edo instalaziorik jartzea. Orobat debekutzen dira irisgarritasuna oztopatu edo mugatzen dutenak.
- 93.-** Izaera urbanoko bideetako erabilerak, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna. Gelditzeko erabateko debekua. Aukera OKERRA adierazi:
- a) Bigarren ilaran, baita lehen ilarako lekua zerbaitek oztopatzen duenean edo babes elementuren batek hartua dagoenean ere.
 - b) Hiriko garraio publikoak bakarrik erabiltzeko diren bideetan eta bizikletek bakarrik erabiltzeko direnetan.
 - c) Izkina, bidegurutze nahiz bidebanatze batetik 5 metro baino gutxiagora.
 - d) Espaloi, oinezkoen esparru eta lorategietan.
- 94.-** Izaera urbanoko bideetako erabilerak, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna. Gehieneko abiadura hirigunean. Aukera OKERRA adierazi:
- a) 60 km orduko, bide periferikoetan.
 - b) 50 km orduko, hiriko kale eta zeharbideetan.
 - c) 30 km orduko, bide bakarreko eta zirkulazio noranzko bakarreko hiriko kaleetan eta zirkulazio-noranzko bakoitzeko bide bana duten kaleetan.
 - d) 20 km orduko, galtzada eta espaloiak plataforma bakarra osatzen duten hiriko kaleetan.
- 95.-** Izaera urbanoko bideetako erabilerak, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna. Bide publikoetan debekatuta dauden erabilerak. Aukera OKERRA adierazi:
- a) Erabiltzaileentzat nahiz hartan dihardutenentzat arrisku edo enbarazurik ekar lezaketen jarduerak oro.
 - b) Jende talde edo multzorik sor lezaketen jarduera eta deialdiak, oinezko nahiz ibilgailuen joan-etorria oztopa balezakete.
 - c) Hirigunean barrena zirkulatzea salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek, zamalanetan.
 - d) Hirigunean barrena zirkulatzea salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek, ezinbesteko arrazoiren bat dela medio.
- 96.-** TAO. Ordutegia. Adieraz ezazu hauetako zeinetan dagoen aktibo TAO:
- a) abuztuaren 20an —ostirala—, 11:30ean.
 - b) irailaren 12an —larunbata—, 13:00etan.
 - c) azaroaren 1ean —asteartea—, 19:30ean.
 - d) urtarrilaren 7an —astelehena—, 16:00etan.

97.- TAO. Identifikazioa. “Maiz aldizkatzeko” aparkalekuak honela identifikatzen dira galtzadan:

- a) kolore urdinez.
- b) kolore berdez.
- c) kolore laranja.
- d) kolore gorri.

98.- TAO. Egoiliarrentzako TAO txartela. Hori ematekotan, betebeharrak bete beharko ditu pertsona fisikoak: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

- a) Egiantan eta modu iraunkorrean, aparkaleku erregulatuko sektoreren bateko kaleren batean erroldatuta egotea.
- b) Txartela zein ibilgailutarako eskatzen den –autoa edo 3.000 kg-tik beherako kamioia izan beharko du–, haren jabea eta ohiko gidaria izatea, eta gidatzeko baimena indarrean edukitzea.
- c) Eskatzailearen erroldatze helbideak eta ibilgailuaren zirkulazio-baimenean ageri denak atari berekoak izatea, eta txartela eskatzen deneko TAO eremuak.
- d) Gasteizko Udalaren Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren azken ordainagiria ordainduta edukitzea.

99.- TAO. Merkatariarentzako TAO txartela. Hori ematekotan, merkataritza-establezimenduak ordainduta eduki beharko ditu: (Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**)

- a) Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak.
- b) Txartela zein urtetarako eskatzen den, horri dagokion tasa, baita aurreko urtekoa ere, eman bazitzaion.
- c) Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren azken ordainagiria.
- d) Gasteizko Udalaren Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren azken ordainagiria.

100.- TAO. Ordenantza-erregulazio arau-haustea. Adieraz ezazu erantzun **OKERRA**.

- a) Ibilgailua aparkatzen delarik, gaitze agirian adierazitako ordu-muga gainditzea.
- b) Beste ibilgailu baten gaitze agiria edo lehendik beste erabiltzaile batek erabilia baliatzea.
- c) Indargabetua edo iraungia dagoen TAO txartel bat, edo ibilgailuari ez dagokion bat erakutsiz aparkatzea.
- d) Indarrean dagoen gaitze agiririk gabe (txartela edo bereizgarria) aparkatzea ibilgailua, salbuetsita egonik, hau da, txartela ez jartzea edo kanpotik argi eta garbi ez ikusteko moduan jartzea.